

Lehiaren Euskal Agintaritzak eta Kontsumobidek lankidetzan aritzea adostu dute, merkatuetako lehia eta Euskadiko kontsumitzaileen eskubideak hobetzeko

Bi erakundeak elkarlanean arituko dira baterako ekintzetan, prestakuntza-ikastaroetan edo argitalpenetan, besteak beste, eta informazioa partekatuko dute lehia justua eta kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko

Alba Urresola Clavero Lehiaren Euskal Agintaritzako Presidenteak eta Olga Santamaría Navaridas Kontsumobideko zuzendariak sinatu dute gaur bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena

BILBON, 2021eko maiatzaren 4an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak gaur sinatu duten hitzarmenaren bidez, bi erakundeak lankidetzan arituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuetan lehia bultzatzeko, horrela, bidezko lehia bermatzeko eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko.

Kontsumitzaileak dira merkatuen funtzionamendu onaren eta bidezko lehiaren onuradun nagusiak, horrela kalitate handiagoko eta prezio hobeko produktu eta zerbitzuak lortuko dituztelako. Horregatik, LEA/AVCren eta Kontsumobideren arteko lankidetzak informazio garrantzitsua trukatzeko bultzatuko du bi erakundeen artean, merkatuan egon daitezkeen akatsak hautemateko, azken batean, kontsumitzaileen kalterako baitira.

LEA/AVCk eta Kontsumobidek kontsumo- eta gaitasun-gaiei buruzko prestakuntza emango dute, erakunde bakoitzeko teknikariek sinergiak partekatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen gaiak identifikatzeko behar diren ezagutzak izan ditzaten.

Kontsumobidek eta LEA/AVCk batera egin ahal izango dituzte informazio-argitalpenak, jorratu beharreko gaiak merkatuen lehia askeari eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesari eragiten badie.

Akordioak lau urteko indarraldia du hasiera batean, eta Alba Urresola Clavero Lehiaren Euskal Agintaritzako Presidenteak eta Olga Santamaría Navaridas Kontsumobideko zuzendariak sinatu dute.

Bi arduradunen iritziz, akordio horrek indartu egiten du erakundeen arteko lankidetzak jarduketan eremu osagarrietan, bi erakundeen jarduna hobetzea lortuko du eta, zalantzarik gabe, herritarrentzat onuragarriak izango diren sinergiak sortuko ditu.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren esku dagoen administrazio izaerako erakunde autonomoa da, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.

Kontsumobideri buruz

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren esku dagoen erakunde autonomoa da, eta bere helburuak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren eta babesaren arloan gobernuaren politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea dira.

Kontsumobidek helburu horiek betetzeko bere gain hartutako eginkizunen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Kontsumitzaileak orientatzea, prestatzea eta informatzea
- Kontsumitzaileen eskura jarritako produktuak eta zerbitzuak seguruak direla eta beharrezko informazioa ematen dutela zaintzea.
- Bitartekaritza eta arbitrajea indartzea, kontsumoaren arloko gatazkak konpontzeko tresna gisa.